BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA | XII. AGINTALDIA

**Serie B** **Información, control e impulso** | **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

**XXII** **Pregunta escrita** | **Idatzizko erantzun-eskea** **XXII**

Bilbo, 2025eko azaroaren 26a
Número 380a — Bilbao, 26 de noviembre de 2025 — 380a alea

**ASUNTO:** Servicios de atención psicológica de menores víctimas de maltrato y violencia sexual

**AUTOR:** Ilardia Olangua, Beatriz

**Admisión a trámite**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 25 de noviembre de 2025, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Procedimiento de Tramitación:** Normal
**Plazos:**
Remisión respuesta escrita por la Diputación Foral (15 días)
**Otros acuerdos**
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículo 170 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 25 de noviembre de 2025.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Bea Ilardia Olangua, portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo de lo establecido en el Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia, formula al departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la siguiente PREGUNTA PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO sobre los servicios de atención psicológica de menores víctimas de maltrato y violencia sexual.

JUSTIFICACIÓN

Según una información publicada en la edición de El Correo de 12 de noviembre de 2025, varias familias vizcaínas concernidas en el asunto de las colonias de verano de Bernedo han denunciado que

**GAIA:** Tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren adin txikikoen arreta psikologikoaren zerbitzuak

**EGILEA:** Ilardia Olangua, Beatriz

**Izapidetzeko onartzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2025eko azaroaren 25ean izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Prozedurea:** Arrunta
**Epea:**
Aldundiak idatzizko erantzuna bialtzeko (15 egun)
**Beste erabagi batzuk**
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
**Araudi oinarria:**
Araudia: 170. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2025eko azaroaren 25ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Bea Ilardia Olanguak, EH Bildu taldeko bozeramaile ordeak, Bizkaiko Batzar Nagusien araudiak ahalbidetzen duen moduan, Emplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailari, honako IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK egiten dizkio sexu-indarkeria zein tratu txarrak jasaten dituzten adintxikikoen inguruan:

ARRAZOIKETA:

2025eko azaroaren 12ko *El Correo* egunkariaren edizioan argitaratutako informazioaren arabera, Bernedoko udalekuetako aferan inplikatutako Bizkaiko hainbat familiak salatu dute ez dutela

no han recibido ningún tipo de ayuda psicológica de las instituciones públicas, a pesar de que recibirla hubiera sido lo esperable dado el compromiso adquirido por la Diputación Foral de Bizkaia para garantizarla. Una de estas familias ha explicado que, tras poner los hechos en conocimiento de la Ertzaintza, se les indicó la existencia de un recurso especializado para atender a las víctimas de agresiones sexuales en Bizkaia. Sin embargo, cuando acudieron al lugar, se les indicó que este recurso era solo para mayores de 16 años y fueron derivadas a los servicios sociales municipales. Allí, al parecer, les indicaron que ese recurso es sólo para personas que carecen de recursos económicos.

Ante la falta de respuesta institucional, la familia se vio obligada a buscar ayuda psicológica por su cuenta. Este caso sólo ha recibido atención institucional tras la repercusión mediática, lo cual evidencia un posible vacío de atención psicológica para menores de 16 años víctimas de violencia sexual. Si no fuera por la difusión que ha tenido el tema en los medios, es posible que situaciones similares se produjeran también con otras familias, que quedarían sin un apoyo específico.

Por ello, formulamos las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO:

1. ¿Qué recursos existen actualmente en Bizkaia para garantizar la atención psicológica a menores de 16 años víctimas de agresiones sexuales?
2. ¿Qué institución o servicio (Ertzaintza, servicios sociales municipales, centros sanitarios o el propio Centro de Crisis de Bizkaia) es competente para la derivación en estos casos?
3. ¿A qué recursos o servicios deriva la Diputación Foral de Bizkaia o el Centro de Crisis a las víctimas menores de 16 años?
4. ¿Cuántas plazas de atención psicológica a menores víctimas de violencia sexual y maltrato existen actualmente en los recursos o servicios dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia?
5. ¿Cuántas víctimas menores de edad han sido atendidas en los últimos tres años (violencia sexual y maltrato) a través de los servicios de la Diputación Foral de Bizkaia (datos anuales desglosados)?
6. ¿Cuál es la duración media de la intervención ofrecida en los últimos tres años a las personas menores de edad víctimas de maltrato y violencia sexual en los recursos dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia?
7. ¿Cuál es el tiempo medio de espera que transcurre entre la solicitud de este recurso dirigido a menores víctimas de violencia sexual y el inicio efectivo de la intervención psicológica?
8. ¿Qué formación acreditable tienen las personas profesionales que atienden a estos menores, tanto las propias de la Diputación Foral como el personal de las entidades contratadas?

Bilbao, 19 de noviembre de 2025

**Arantza Sarasola Lartategi**
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

jaso inolako laguntza psikologikorik erakunde publikoetatik, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza hori bermatzeko hartu zuen konpromisoaren ondorioz espero zitekeena izan arren. Familia horietako batek azaldu duenez, gertaerak Ertzaintzari jakinarazi ondoren, Bizkaian sexu-erasoen biktimak artatzeko baliabide espezializatu bat zegoela adierazi zieten. Hala ere, bertara jo zutenean, bertan esan zieten baliabide hori 16 urtetik gorakoentzat soilik zela eta udaleko gizarte zerbitzuetara bideratu zituzten. Han, antza, adierazi omen zieten baliabide hori baliabide ekonomikorik ez duten pertsonentzat bakarrik dela.

Erantzun instituzionalik ez zegoenez, familiak bere kabuz bilatu behar izan zuen laguntza psikologikoa. Kasu honek oihartzun mediatikoa izan ondoren soilik jaso du erakundeen arreta eta honek agerian uzten du sexu-indarkeriaren biktima diren 16 urtetik beherako adingabeentzako arreta psikologikorako hutsune posible bat. Gaiak hedabideetan izan duen zabalkundearengatik ez balitz, litekeena da antzeko egoerak beste familia batzuekin ere gertatzea, berariazko laguntzarik gabe geratuz.

Hau guztia dela eta, honako IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK egiten ditugu:

1. Zein baliabide dago gaur egun Bizkaian sexu-erasoen biktima diren 16 urtetik beherako adingabeei arreta psikologikoa bermatzeko?
2. Zein erakunde edo zerbitzuk du eskumena kasu horietan bideratzea egiteko (Ertzaintza, udaleko gizarte zerbitzuak, osasun-zentroak edo Bizkaiko Krisi Zentroa bera)?
3. Zein baliabide edo zerbitzutara bideratzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiak edo Krisi Zentroak 16 urtetik beherako biktimak?
4. Zenbat plaza daude gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden baliabide edo zerbitzuetan, sexu-indarkeriaren zein tratu txarren biktima diren adingabeei arreta psikologikoa eskaintzeko?
5. Zenbat adingabe biktima artatu dira azken hiru urteetan (sexu-indarkeria zein tratu txarrak) Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuen bidez (urtez urteko datu desglosatuekin)?
6. Zenbatekoa da azken hiru urteetan Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko baliabideetan tratu txarrak zein sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeei eskaintzen zaien esku-hartzearen batez besteko iraupena?
7. Zein da sexu-indarkeriaren zein tratu txarren biktima diren adingabeei zuzendutako baliabide honen eskaera egin eta esku-hartze psikologikoa benetan hasten den arte igarotzen den batez besteko itxaronaldia?
8. Zein prestakuntza egiaztagarria dute adingabe hauei arreta ematen dieten profesionalek, bai Foru Aldundiaren barnekoek bai kontratatutako erakundeetako langileek?

Bilbon, 2025ekazaroaren 19an

**Arantza Sarasola Lartategi,**
EH Bildu taldeko taldeburuordea